

KASU PRAKTIKOA

1) **KUTIXI S.A.** ri buruz hurrengo informazioa daukagu. Azal ezazu, **Sozietate honen zein urteko kontuak ikuskatu behar diren.**

	X urtea (Kutixi S.A.aren eraketa)	X+1 urtea	X+2 urtea	X+3 urtea	X+4 urtea
AKTIBOA	1.200.000	2.000.000	2.590.000	3.000.000	2.300.000
NEGOZIO ZIFRA	1.900.000	4.500.000	7.000.000	7.000.000	6.000.000
LANGILE KOPURUA	60	65	65	45	45

X, X+1 eta X+2 ekitaldietako urteko kontuak ez dira zertan ikuskatuak izan behar eta X+3 eta X+4 ekitaldietako urteko kontuak bai izan behar dira ikuskatuak (Kapitaleko Sozietateei buruzko Legearen 263. artikulua)

2) **Demagun auditoria sozietate batean bazkide eta auditorea zarela. KUTIXI S.A.k, 60.000 euroko kapitala duenak, zuen auditoria sozietateari urteko kontuen auditoria egiteko enkargatu dio. Enkargua onartu aurretik Kutixi S.A.rekin auditoria sozietateak erlazioen bat duen aztertu behar duzue. Auditoria sozietateak hurrengo suposamenduetan enkargua onartu dezaken erantzun behar duzue:**

- a) **Auditoria Sozietatearen bazkideetako baten aitona KUTIXI S.A. ko finantza zuzendaria da. BAI**
- b) **Auditoria Sozietatearen bazkideetako baten anaia Kutixi S.A.ren administratzailea da. EZ**
- c) **Auditoria Sozietatearen bazkideetako baten ezkontidea Kutixi S.A.n enplegatua izan zen (komertziala) ikuskatzea enkargatu dioten ekitaldiaren aurreko urtean. BAI**
- d) **Eratu duzuen auditoria-sozietateak Kutixi S.A.ren kontabilitatea eraman zuen. EZ**

- e) **Zuen auditoria sozietateak Kutixi S.A. ren makina bat baloratu du.**
BAI
- f) **Zuen auditoria sozietatearen bazkideetako batek Kutixi S.A.n 2.000 eurogatik akzioak ditu.** BAI

(Auditoriari buruzko Legearen 19. Artikulua)

3) Auditorea zara eta Kutixi S.A.rekin kontratua egin duzu. Azal ezazu Kutixi S.A eta zure arteko auditoria kontratuaren iraupena zenbatekoa izan daiteken lehenengo aldiz eta zenbatekoa bigarren aldiz lehenengo kontratua bukatu ondoren.

Auditoreari lehenengo aldiz kontratatzen zaionean, gutxienez hiru urterako kontratatuko zaio eta gehienez bederatzi urterako. Lehenengo kontratua bukatzen denean (beti ere gutxieneko hiru urteko epea eta gehieneko bederatzi urteko epea errespetatuz) auditore hori behin eta berriz kontratatua izan daiteke gehienez hiru urteko kontratuekin.

Urte batean Kutixi S.A.k auditorea aldatuko balu berri bat kontratatuz, eta geroago, berriz, zu kontratatu nahi bazaitu, zenbat denborarako egin beharko luke?

Gutxienez hiru urterako eta gehienez bederatzi urterako.

Demagun, auditore pertsona fisiko bat bezala aritu ordez, zure lagun batzuekin auditoria sozietate bat eratu zenuela. Kutixi S.A. aseguru konpainia bat izango balitz eta zuek eratutako auditoria sozietatea zazpi urtetan kontratatuko balu, zer egin beharko zenukete Kutixi S.A: bezero bezala galdu ez dezan?

Auditoria Sozietateak bezeroa galdu nahi ez badu, bere izenean auditoria txostena sinatzen duen pertsona aldatu beharko dute, bi urte pasa behar direlarik pertsona horiek sozietate hori berriz ikuskatu ahal izateko.

4) Zenbat denbora du legalki auditoria sozietateak, gutxienez, auditoria txostena entregatzeko? Urteko kontuak entregatzen zaizkionetik, gutxienez, hilabete dauka.

Non azalduko da zein den denbora zehatza? Auditoreak eta enpresa ikuskatuak sinatu duten auditoria kontratua azalduko da.

Eta denbora maximoa zein izango da? Ohizko batzar nagusiaren deialdia izango da auditoria txostena entregatzeko duten denbora maximoa.

Behin txostena idatzita dagoela, azal ezazue nori entregatu beharko zaion, zertarako den auditoria txostena eta edozein hiritarrek nola ezagutu dezaken auditoria txosten hori, arauen bitartez justifikatuz.

Auditoria txostena administratzaileei entregatuko zaie. Administratzaileek bazkideen xedapenera jarriko dute auditoria txosten hori, urteko kontuak onartzeko ospatuko den ohizko batzar nagusian beren botoa urteko kontuen onarpenaren alde edo kontra eman dezaten.

Hala ere, auditoria txostena beste pertsona askori interesatzen zaie (hartzekodunak, Administrazio publikoa, langileak, etab.). Urteko kontuak onartu ondoren, auditoria txostenarekin batera, Merkataritzako Erregistroan gordailatu behar dira auditoria txostenak. Merkataritzako Erregistroa publikoa da eta edozeinek du bertan inskribatu edo gordailatu dena ikusteko aukera. Honela, edozein pertsonak sozietate baten urteko kontuak eta auditoria txostena ikusteko gaitasuna dauka.

5) Izendatua izan zen epea igaro aurretik auditoreak ikuskatutako enpresari buruzko informazioa bere lehiakideei emango balie, zeintzuk izango liriateke horren ondorioak?

Kontuen Auditoriari buruzko Legearen 25. artikulua dioenez, auditorea behartuta egongo da lanetik lortzen duen informazioa sekretuan gordetzera. Sekretu obligazioa hausten badu auditoreak efektuak hurrengoak izan daitezke:

- a) Arau hau urratzeagatik sorturiko kalte-galerengatik erantzukizun zibila.
- b) Erantzukizun administratiboa. Sekretua gordetzearen obligazioa haustea, arau hauste oso larria da eta dagokion zehapena jarriko zaio (Legearen 33 d) artikulua).
- c) Sekretua haustea auditorea errebokatzeko bidezko kausa izan daiteke. Auditoreak bere sekretua gordetzeko obligazioa betetzen ez badu, Batzar nagusiak auditorea errebokatzeko bidezko arrazoi bat izango du.

6) Kutixi S.A.k auditore bat izendatu behar du Kapitaleko Sozietateei buruzko Legearen 263.2 ezarritako zifrak gainditzen dituelako. Nork izendatu beharko du? Akziodunen Batzar nagusiak.

Azkenean Merkataritza Erregistratzaileak izendatu du. Zergatik?

Sozietate bat ikuskatua izan behar denean, Batzar nagusiak auditorea izendatu ez badu ikuskatu beharreko ekitaldia itxi baino lehen, edo izendatutako pertsonak ez badute kargua onartzen edo ezin badituzte funtzioak bete, administratzaileek, obligaziodunen sindikatuko komisarioak nahiz edozein akziodunek, sozietatearen egoitzako Merkataritzako Erregistratzaileari auditoria burutu beharko duten pertsonak izendatzea eska diezaioke.

Kutixi S.A.n izendatutako auditorea epaileak izendatu du. Zer gertatu da epaileak auditorea izendatu dezan?

Epailearen izendapena posible izateko, Batzar nagusiak edo Merkataritza Erregistratzaileak izendatu duen auditorea errebokatze bidezko kausa bat egon beharko da.

Auditoreen errebokazioa, hasiera batean, Sozietatearen Batzar nagusiari dagokio. Batzarrak, bidezko kausa bat egonik, ez badu auditorea errebokatzen, administratzaileek eta pertsona legitimatuek sozietatearen egoitzako epaileari, auditore horren errebokazioa eta beste baten izendapena eska diezaioke.

Kutixi S.A.k, printzipioz, bere kontuak ikuskatu beharko ez balitu, nola lortu daiteke ikuskatu behar izatea?

Sozietate bateko urteko kontuak auditore batek ikuskatuak izan behar ez direnean, sozietate horretan gutxienez kapital sozialaren ehuneko 5a duten akziodunek, sozietatearen egoitzako Merkataritza Erregistratzaileari, ekitaldi zehatz bateko urteko kontuen berrikuspena egingo duen auditore baten izendapena egitea eska diezaioke, ekitaldi horren itxieratik hiru hilabete igaro ez badira.

Sozietate batek auditorea izendatzeko obligaziorik ez badu, baina bidezko interesa duenaren eskaera oinarritua onartzen badu, Auzitegiak auditorea izendatu dezake.

7) Kontuen auditoriak egin ahal izateko eta auditoreak izan dezaken erantzukizun zibilari aurre egiteko zein baldintza bete behar du auditoria sozietateak Kontabilitate eta Kontu Ikuskaritza Institutuarekiko? Azal ezazu. Zer gertatuko litzateke auditoria sozietateak baldintza hori beteko ez balu?

Kontuen Auditoriari buruzko Legeak 23. artikuluan dioenez, auditorian jardutearen ondorioz sor daitezken kalteengatik erantzun ahal izateko, bai auditoreek bai auditoria sozietateek fidantza bat jarri beharko dute. Beren lanaren ondorioz kalteak sortuko balituzte, kalte horiek konpontzeko berme bat da fidantza hori. Auditoria sozietateek eta auditore jardunlariak jarri behar dute fidantza hori.

Fidantza jartzen ez bada, auditoria sozietateari auditoreen erregistro ofizialetik baja emango zaio eta auditore jardunlariari jarduten ez duen auditorearen egoerara pasako zaio.